

SECCION AMENA



¿ALA OTE ZAN?



Bildurraz eta ikaratuba
 andre triste bat lenguan,
 Juez seriyo baten aurrian
 erdi negarrez zeguan.
 Ikusirikan doakabia
 sartuba ala izuban,
 ate atziangorde nintzan ni
 entzutiatic zer zuban.
 —¿Egiya alda, diyo Juezak,
 arturik oso estuban,
 zaku ikatza ostu dezula
 atzo Brechako onduan
 eta segiran beriarrekiñ
 itzuli ziñala juañ?
 —Bai jauna; baña zaku ikatza
 botia zegon zokuan,

eta ni nola ¡kusitzen du!
 aur-egiteko naguan,
 kutizi bat zan eta argatik
 artu ta eraman nuan.
 —¿Kutiziya? ¡Zer esaten dezun
 artzazu gero goguan,
 eta gezurra gertatzen bada
 jarritzen zaitut kontuban,
 enbusteriya izango dala
 zuretzat zorigaiztuan!
 —Egiya dala sinistra beza
 nola sill'ortan daguan,
 ero bestela jarri nai badu
 beorrek nere moduan,
 ¡ai! kutiziya zer gaistua dan
 progatuko du orduban.

VICTORIANO IRAOLA.

